

# GRAFOLOGIA

"Arimaren aurpegi misteriotsua isladatzen duen  
izpilu sorgindua da idazkera".

**Irene Ibarra**

**Grafologoa**

Gure artean hain ezezagun eta bitxia den mundu zabal honi buruz zenbait zertzelada ematera natorkizu, zuri, Uztaro-ren irakurle horri. Zientzia honek, Grafologiak, Alemanian, Frantzian, Italian eta herrialderik aurreratuenetan leku aipagarria duelarik, Euskal Herrian ere atea ireki beharrean aurkitzen gara.

Honela ba, arimaren misterioak ezagutzeko gonbidapen bat egiten dizut, emaziozu buelta orriari.

---

## Grafologia zertan datzan

---

Txikitan kaligrafiako letrak idazten ikasi eta gero, norberak bere idazkera pertsonal eta idiosinkrasikorantz jotzen du; hau da, jaiotze garen herri eta kulturaren oinarritzko arauak geureganatu eta norbere herentzia, gustu estetiko, mimetismoaren arabera, ideiak adierazteko modu konkretu bat lantzen dugu, berezia.

Beraz, gizaki berdin-berdin bi egotea ezinezkoa den bezala, sekula ez da esistituko idazteko era bizirik.

Gizaki bakoitzak, bere adimena, sentimentua, bulkada, joera, gurariak, erreakzioak... etab. inprimatzen ditu orri idatzian. Inoiz ohartu izan gara gaixo dagoen zahartxoren baten indarrik gabeko idazkera dardartsuaz, edo ordenarik gabeko lagunaren eskutitzaz, edota ikasle baten azterketa ulertezinaz.

Grafologiak, mugimendua, espazioa eta forma kontuan hartuz, pertsonaren nortasuna, temperamentua eta izakera aztertzen saiatzen da.

Grafologoarentzat, idazkera, lengoia izateaz gain, gure keinuen erregistro grafikoa da.

Mugimendu grafikoak sortutako fenomenoak, esannahi inkontzientek.. ikastea du helburu Grafologiak .

---

## Korronteak

---

Gauregun sei korronte garrantzitsu daude grafologian:

- a) Korronte mimikoa
- b) Korronte sinbolikoa
- c) Korronte emozionala
- d) Kontziente-inkontzientearen korrontea
- e) Korronte intuitibo-kontrastatuarena
- f) Korronte induktibo-alfabetikoarena

### a) Korronte mimikoa

Michon eta munduko lehen jakintsuak mimikan oinarritu ziren euren lehen ikerketetan.


Gizakia betidanik, keinuak kolorez, indarrez edo erliebez jantzi dituen izakia izan da: bai marrazten, bai hitz egiten edo antzerkia egiten.

Hasierako grafologoek, hipnosi eta sugestioaren bitartez desberdindu zituzten ezaugarri indibidualak: keinu grafikoaren lehen pausu banatzailea beraz, inkontzienteari irteera ematen zitzaion froga-multzo bat izan zen.


Crepieux-Jamin-en ustez, idazkera zazpi espezetan banatzen da eta espezie hauek era berean, 181 modutan edo genero grafikotan.

Keinu-talde nagusiak ondoko hauek dira:


- 1) Ordena eta marginak: Letra, hitz eta lerroen eraketa, testuaren kokapena orrian eta letren proportzioak bilatzen ditu, honela, gizakiaren eratzeko ahalmena erakutsiz.



Margen oso irregularrek disziplina eta sistema eza, hunkiberatasuna agertzen dute.




Espazio huts asko aurkitzean, pertsonak bakardadea bilatzen du.




Ezkerreko margenek uzten ez dugunean, amaren gonapean babesten gara, etorkizunaren beldur.

2) Dimentsioa: mugimenduen zabalatasuna esan nahi du. Eraturako neurri konkretu batzuren arabera, idazkera handiak, indarra, es-trabertsioa, harrotasuna eta beste hainbeste faktore azal ditzakeen bezala, idazkera txikiak introbertsioa, xehetasuna, behaketa, besteekiko gutxiago sentitzea... adierazten du. Baina inor ez beldurtzeko, ondokoa aipatu behar da: elementu bakar batek (adibidez letra txikiak) ez duela zuzenean gutxi sentitzea adierazten; elementu asko izan behar dira kontutan.




Pertsona honek, mugituko den toki guztietan bere arrastoa utziko du.



Joan Mari Irigoien idazlea: jakinahia, miakatze eta kritika gai-tasuna duena.

3) Presioa: bulkada grafikoaren indar edo bortiztasuna da. Boligrafo berberarekin hamar pertsonak orri batean idatziko balute, harritu egingo ginatke: batzuk zulatu egingo lukete eta besteren batek emeki, ia papera ukitu gabe utziko lituzte bere seinaleak.




Bere eskulturak gogorarazten dizkigun indar eta orijinaltasuna, ikusmen eta oroimen sakonarekin bat. (Txillida).

Wire urtebetetzea bil  
 izamik txokolatea t  
 jatera gonbidatzea g  
 litzaidake ikusiko d  
 zelako ondo pasatzen  
 denok alkarrekin.


Pertsona sentibera eta hauskorra, energia gutxikoa.

4) Forma: letren estrukturaren modalitatea da. Adibidez, angelu asko dituen idazkerak, pertsona gogorra, arrazoiari lekua uzten diona, diziplinatsua adieraziko digu; bestalde, kurboak, alaitasuna, xamurtasuna, sentimentuaren indarra eta irudimena errazten du, borobila, ordea pasibotasunaren seinale delarik.

Irudi bi hauetan, Mussolini-ren garai desberdinetako sentimendu kontrajarriak ikus ditzakegu:



Boterean zegoeneko idazkera zabal eta kurboa, bere buruarekiko ziurtasuna.




Gartzelan, hil aurretiko egunetan, lagunei idazten die: ezinegon, tentsio eta depresioa argiak dira.

5) Abiadura: inpulstu grafikoaren bizkortasunaren arabera, idazkera eta pertsona arinak, geldoak, lasaiak...


aurkitzen ditugu. Letrak arinak eta ulergaitzak badira, pertsona honek garrantzi gehiago emango dio kopuruari, gauza ugari egiteari; ideiak buruan zehar arin ibiliko zaizkio.

Hitzak ondo ulertzen badira, pertsonak idatzi beharrea marrazten dabilela badirudi, kalitatea handituko da baina presa sartzen zaionean, estu eta larri ibiliko da, noraezean.



Idazle honek, hausnarketa-lanak bere gustora amaitzeko denbora edukitzea maite du.

6) Norabidea: espazio grafikoan, mugimenduen trazaketek planu sinbolikoa osotzen dute. Korrante sinbolikoari dagokion atalean sakonduko dugu puntu hau.

Napoleon Bonaparte Austerlitz-eko garaipena iragartzen: sinadura argia ez den arren, ikus goranzko keinu primarioa.



Gorputza eta keinua beherantz doaz, porrotaren seinale legez; oso espresiboa da sinadura hau.

7) Inklinazioa: mugimenduen naturaltasuna eta joera azaltzen ditu. Imagina dezagun, "b", "t" eta "l" letrak pertsonak direla; eskuinerantz makurtzen den hizkia, pertsonaren antzera, munduaz, gizakiaz kezkatuko da. Atzerantz agertzen dena, pentsakor, zerbait izkutatzen edo kontaktu berriak zokoratzen ibiliko da.


Zuzen dagoena, bulkada eta sentimenduak menperatu nahian dabil, objektiboa eta eritzi zuzeneko pertsona isladatzen ditu.

Gesurak zikinak  
Bilde zure gesurak  
Eta garbi haizea  
Zure inguruetan

Perurena, besteenganantz doa bulkada handi batek bultzaturik, arin.

hurbiltzen naizen  
zerbait arraroa s  
zer den baina on  
ez beste guztia

Ezkerrerantz makurtzen den idazkerak mesfidantza, zuhurtzia eta orokorrean sentimentu minduak isladatzen ditu.



8) Jarraitasuna: iraunkortasuna, erregularitasuna, uhin grafikoaren egonkortasuna... adierazten du. Kontutan eduki behar dena hau da: letra bakoitzak ideia bat aditzera ematen du; beraz, interpretazio desberdinak egongo dira letren arteko lotura ala lotura eza dela medio.

ordemarik g  
iraganaren  
hitzen m mltz  
abertaritateka

Xabier Lete: intuizioa ikusten dugu lotu gabeko letra hauetan. Bere barnearekin, inkontzientearekin erraz jarriko da harremanetan.

## b) Korronte sinbolikoa

Crepieux-Jamin eta Klages-i jarraituz, Max Pulver sinboloetan espezializatu da, denbora eta espazioan bereiziki.

Hautzaroko iragan eta ziurtasuna atzean utzi nahirik, bizitzako abenturetara murgiltzen gareneko mugimendu izukorrez ohartuko gara orriaren ezkerretik eskuinerantzko lerro edo koordinatuan.

Goitik beherantzko beste plano edo koordinatuan, lurra oinazpian sentitu behar duten pertsonak agertuko zaizkigu edo urtxintxa baten antzera zuhaitz artean ibiliko diren idealistak, etab.

Guk orriaren espazio zuria erabiltzen dugun era, neurri handi batean kondizionamendu kultural bat izango litzateke.

Mendebaldean bakarrik mugitzen gara ezkerretik eskuinerantz, ezkerretik mundu ixil eta inkontziente ezezagunetik, eskuin eraginkor eta produktiborantz. Idazkera semitikoa goitik behera eta gero ezkerretik eskuinera doalarik.

Pulver-ek ekarpen garrantzitsu bat egin zigun, guzti honetaz gain: testu edo komunikazio idatziak pertsona giroan sinbolizatuko du, hau da, aspektu soziala; sinadurak, berriz, ni intimoa agertaraziko digularik. Honela, ba, gerta dakiguke esaterako, sinaduraren letrak testuarenak baino angelutsuagoak izatea, "kanpoan uso eta etxean otso" atsotitzaren aurrean

aurkituko ginelarik, hain zuzen ere. Beste makina bat desoreka ere aurki genezake.

Bulkada grafikoa, joera, instintu eta beharrezan araberak, grafiko honetan adierazitako espazio grafikoko arlo edo esfera baterantz edo besterantz abia daiteke orokorrean.


Gizatasuna bezain zaharra den espazioaren sinbolismoan, "goiak" ideala, boterea, desioa, arrakasta, dibinitatea, misterio izpirituala, mistizismoa... gogorazten digu. Fantasiaren lekua da; begiak zabalik ametsetan ihardutearena, harrokeria eta norbere burua Jaungoiko bihurtzearena (igon, goian egon, menperatu, zuzendu eta aginduak eman).

"Beheak" eremu materiala, gorputz eremua, instintuak... erakutsiko dizkigu. Zentzu positiboan, beharrezan biologikoak: egarria, gosea, sexualitatea eta bestalde sentsazioak; inkontziente pertsonala, senide eta izaki guztiena eta gainera interes praktiko-teknikoak ere hementxe koka ditzakegu.

Zentzu negatiboan, beherantzko mugimenduak, nekea, depresioa, larritasun morala, inpotentzia edo borrokarako indar eza eta honen ondorio diren sumisio eta porrotera hurbiltzen gaitu.

Goi- eta behe-eremuek bat egiten duten tokian, psikologikoki garrantzi handia duen beste alderdi batekin egiten dugu topo: "erdikoa", hain zuzen ere. Kontzientzia morala, sentimentuen joerak, orainaldia eta

<p><b>TRANSTORNO ERREAKZIONALAK</b> IRAGANAREN NOSTALGIA ESTURA - ERREPRESIOA BAKARDADEA</p> <p><b>ASMOAREN TOKIA</b> (desio-gogo, edukitzeko ilusioa, antisia, gutzia)</p> <p><b>INTROBERTSIOARENA</b> (ixiltasuna, hausmarketa, mediatzioa)</p> <p><b>PERTZEPZIOARENA</b> (formak, harmonia, argi-ilunaren kontrastea, perspektiba, proportzioa)</p> <p><b>IRAGANARENA</b> (oroitzapenak, malenkonია, nostalgia)</p> <p><b>NI-A DEFENDATZEARENA</b> (norbekeria, egozentrismoa, ezetza, murrizaldia, errepresioa)</p> <p><b>INHIBIZIO ETA IZUARENA</b> (mesfidantza, erreserba, pesimismoa estutasuna, segurtasun eza)</p>	<p><b>IDEALISMOAREN IZPIRITUAREN</b> SUBLIMAZIOAREN, PENTSAMENDU GARBIAREN TOKIA (fantasia, mistizismoa, inrdimen abstraktua, gurarien burutzapen imaginarioa)</p> <p style="text-align: center;"><i>GOI-ALDEA</i></p>	<p><b>ESTRABERTSIOAREN TOKIA</b> (ekintzak, erabakiak, hedakundea, iniziatiba)</p> <p><b>DINAMIKARENA</b> (mugimenduaren, kolorearen, adierazpenaren zentzua)</p> <p><b>BOTERE NAHI ETA DOMINAZIOARENA</b> (konkista eta erabileraren bulkada)</p> <p><b>BORROKAREN INSTINTUARENA</b> (oldarkortasuna, borrokatasuna, suntsidura)</p> <p><b>ETORKIZUNARENA</b> (konfidantza, fedea, ziurtasuna, geroaren optimismoa)</p>	<p><b>ESKUIN-ALDEA</b></p> <p style="text-align: center;"><i>ERDI-ALDEA</i></p> <p style="text-align: center;"><i>BEHE-ALDEA</i></p> <p><b>ITSUKERIA - BURUGOGORTASUNA</b> ETSIPENA - ERORPENA INTERES MATERIALAK</p>
--	--	--	---



gizabanakoak jendearekin dituen erlazio afektiboak kokatzen dira hemen.

Izatearen erdigunea dugu hau, zelan maitatzen edo gorrotatzen duen, gizarteko buruhausteeekiko erantzuna eta besteenganako zintzotasuna agertarazten digu pertsonak toki honetan idazten duenean.

Mugimenduen norabidea "eskui-nerantz" aukeratzekoan, besteengana, kanpokaldeko mundura zabaltzen gara: besteari eskua ematen diogu, alozentrisismo eta eskuzabaltasunean. Baina zentzu negatiboan, borroka, botere eta menperapenaren eremura hel gaitezke. Gizakiak dena konkistatu, apurtu eta bere menpe jarri nahi izango du.


Letra edo hitz-multzoak "ezkerraldean" gelditzea edo harantz abiatzeak zein zentzu izango ote du? Pertsonak, kutxa sekretu batean gordeko du bere barne-bizitza. Hausnarketa, ixiltasuna, kalkulu eta proiektua, administrazio egokia, iragana eta bere barne-ilusioen mundua isladatuko dira. Zentzu ezko-rreran, interes pertsonalak (jelosia, handinahia, bekaizkeria) mesfidantza, duda, estura... e.a. aurki ditzakegu.

Sinbolismo hau Psikologiak ametsen interpretazioetan eta zenbait froga proiektibotan erabiltzen duen berbera da: Rorschach, test desi-deratiboak, etxearen eta zuhaitzaren testa...

### c) Korronte emozionala

Mugimendu emozionala, Rafael Sherman vienatarraren eskutik hasi zen 1930. urtean.

Korronte hau izakiaren inkontzientean sartzen da: emozioa dela eta, idazkeran edo grafismoan sortzen diren aldaketa edota deformazioak ikasten saiatzen da. Zehatzago esateko, Sherman-ek lapsus edo eragin emozionalak bilatzen ditu. Adibidez maite dugun pertsona baten ala gorrotatzen dugun baten letrak idazteko era ez da berbera, ezta antzik ere.



Bederatzi urteko neskato baten esku-izkribu hau Justiziaren aurrean aurkeztu zuten; Aitarekin gelditzea gogoko duelako froga argi bat dugu (ikusi "mamá" zelako hizki txikiekin idatzi duen).

### d) Kontziente-inkontzientearen korronte

Marra, letra, hitz, lerro edo esku-titz bat hasten dugunean, apurka-apurka bulkada inkontzientea sartzen eta nahasten doan neurrian, idazkera errefleju antzeko bihurtzen joaten da, forma pertsonalak sortaraziz.



### e) **Korronte intuitibo-kontrastatua**

Italiako grafologi mugimendua, Aita Jeronimo Moretti-ren lanari esker, eskola intuitibo legez har dezakegu.

Intuitiboki, marra eta seinaleak sailkatuz eta gero kontrastatuz, sistema ziur batera heldu zen.

### f) **Korronte intuitibo-alfabetikoa**

Nahiz eta Grafologia hasi zenean mugimendua izan, lehendabizi Alemanian eta Frantzia gaur egun, indar handia hartu duen korronteaz ari gara hitzegiten. Letra, maiuskula, minuskula, zenbaki, puntuak eta zeinuak... bakarka ikertuz nortasunaren aurkikuntza harrigarriak lortzen ari dira eskola batzu.

---

## **Historia apur bat**

---

Grafologia, gizakiaren eskuak idatziriko lehen izkribua bezain zaharra omen da. Dakigunez, Egipton, idazkerak kutsu sakratua zuen, Txinan kulto berezia eskaintzen ziotelarik. Liburu sakratuak, dibinitatea erre-flejatzen zuten idolo miresgarriak ziren. Japonian ere, oinarritzko grafologia, antzinako garaietatik praktikatzen da.

K.a. 300. urtean, hauxe esan zuen Falera-ko Demetrio-k: "Letrak arima azaltzen du". Erdi Aroan, inprimategia asmatu aurretik, monjeak dira idazteko aukera duten pertsona bakarrak, ohoredunak. Unibertsitateen bitartez, kulturaren esparrua zabaltzen egiten da; Ernazimentuaren ondorioz, komuni-

katzeko eta idazteko gogoak indarra hartzen duelarik.

Baina benetan lehen aipamen grafologikoa, XV. mendean aurkitzen dugu, "i"-ren gainean puntuak jartzeko dioena.

1622. urtean Boloniako (Italia) Unibertsitatean Filosofia irakasle zen Camilo Baldok, arrakasta handiko liburu bat idatziko zuen: "Trattato come de una lettera missiva si cognoscano la natura e qualità dello scrittore".

Shakespeare, Leibniz eta Goethe pertsonaia garrantzitsuak ere arduratu ziren Grafologiaz. Cavater "lengoaia, pertsonaren ibiltzeko martxa eta idazkeraren artean" berdintasun batzu aurkitzera heldu zen.

Edgar Allan Poe-k, autografoak bildumatuz eta sentimenduz gidaturik, lehen lerro psikologiko batzu idatzi zituen, Grafologia intuitiboki landuz. 1830. urtean, Frantzia lehen Grafologi eskola sortu zen, zientzia honen izena, Michoni zor diogularik.

Grafologiak, beraz, Italian sortu eta Frantzia garatuz, heldutasuna zientifikoa azken herri honetan lortu zuen.

---

## **Zertarako erabiltzen den**

---

### **Aplikazio praktikoak**

Grafologia, hasieran, izaeraren ezaugarri mugatuen interpretazio bakuna izan bazen ere, unibertsalki

zabalduta den heinean, psikologiaren ikerketa-bide bezala edota gizakia ikergai bezala duten zientzien artean (Soziologia, Historia, Antropologia), adar batzutan bideratu edo banandu da. Hona hemen batzua:

- G. fisiologikoa: mugimendu grafikoek burmuinean dute sorrera eta beso-eskuen giharre-guneetatik abiatzen dira. Honela, adar honek mugimenduen sorrera, timoan, zerebeloan, burmuin azalean... ikasten du. Lan bikainenak: Pophal eta Kretschmer doktoreenak Alemanian, Periot eta Callewaert Frantzian, Moretti eta Luisetto Italian...
- G. tipologikoa: ezagutzen diren tipologietan, idazkera-mota edo seinu-grafiko naharoak aurkitzen dituen da. Kretschmer-en biotipoak, Hipokrates-en sailkapena, Spranger-en tipologia, Jung-ena, Szondi-rena...
- Medikuntz Grafologia: Rogues de Fursacs-ek 1935. urtean hasita gaur egun arte Estatu Batuetan aurrerapen handiak lortu dira. Alemania, Holanda eta Suizan ere oso aurreratua dago. Estatu espainiarrean, Vallejo Nájera, Mena, Allué... daude.
- G. judiziala (peritaje grafologikoa): helburua, agirien egile anonimo eta faltugileen bilaketa da.
- Grafometria: mugimendu grafikoak kuantitatiboki baloratzen saiatzen da. Honela, grafologia toki garrantzitsu bat lortzen ari da frogatik psikoteknikoen barnean. Theodor Stein


Lewinson-en sistemari esker, ordenagailu elektronikoz baliatu gaitzake.

- G. karakteriologikoa: enpresetako jendea aukeratzeko, ikasleak ezagutu eta hezitzeko, ezkondu aurreko edo ezkontzarako norabideak jakiteko (karakterren moldapenak), historia-ko biografiak egiteko... etab. etarako erabiltzen da. Grafologo gehienek mundu honetan dihardute.
- Grafoterapia: Estatu Batuetan eta Frantzian asko erabilia. Helburuak, hitzak adierazten duen bezala, terapeutikoak dira:
  - . Izaeraren akatsen zuzenketa
  - . Berreziketa
  - . Gaixo eta atzeratuen berrabilztea
  - . Klinika askotan ebaketa kirurjikoetan lehenagokoa eta gerokoa ikusteko tratamenduetan...

Harrigarria dirudi, baina metodikoki zuzendutako ariketa idatzien bitartez, aurrerapen handiak lortzen ari dira grafoterapeutak.

### **Ezkutuko Gabriel Aresti agerian**

Gizon eta olerkari honen, besterik ezean "bihotzez" euskararen defendatzaile sutsu honen, egiaren eta niaren izenean hainbeste borrokatu zuen iraultzaile eta hiritar honen idazkerak, pentsamolde eta ekinbide argiak isladatzen ditu, non hitz bakoitza, esaldi bakoitza ulerterraz bihurtzen den.



Besteen nortasunarekiko giza-bidetsu, begirunetsu, bere zale-tasunetan xume, estrabagantzia eta hizkeriaren etsai; epaiak eman eta erabakiak hartzerakoan iraganean edo bere esperientzan oinarritu behar zuena.

Hunkiberatasuna guztiz menpe-raturik, hausnartzeko joera handia zuen, bere buruarekin etengabeko eztabaida sakonak izango zituelarik, nonbait.

Bizitzan zehar, arretaz doa eta arris-kuetan ez murgiltzeko ziurtasun-neurri ukaezinak hartu beharrak, alde negatibo batzu dakartzkio: hala nola, bere barneko ziurtasun ezaren fruitu diren inibizio eta herabetasun izpiño bat.

Baina, bestalde, ondorio positiboek, zuhur eta aurrikusle bihurtu zuten.

Erantzukizun tinkoarekin, kalitate handiko lanak, kontu eta borondate izugarri burutu zituen, behin eta berriz, gainbegiratur, borobilduz, haririk aske geldi ez zedin.

Xaloa, besteekin atsegina, bere buruaren jabe eta goxoa izanik, jendearekin harremanetan egotea gustoko zuen; baina bere kasara moldatu eta ziur sentitzeko giroa ondo arakatu beharrean aurkitzen zen.

Baliteke, ondo ezagutu ez eta bere inguruan zebiltzan pertsonak, serio, misteriotsu eta ameslari legez ikustea; aitzitik, benetako lagunak, zeinekin zintzo jokatu zuen, bere buruestima eta bizitzako jomuga altuen partaide izango ziren, seguraski.

#### **Ohar bat:**

Gabriel Aresti-ren nortasunari buruzko lantxo hau, bere bizitzaren garai batera mugatzen da. Nire ustez, 1968. urte inguruan idatzia izango da, garai horretako "Glosa de las cigüeñas" idazki batekin duen antzerakotasuna ikusirik.

Azterketa sakonago bat egiteko, garai desberdinetako esku-izkribuak beharko nituzke.

---

## Bibliografia

---

VELS, A.; *Diccionario de grafología y términos psicológicos afines*, Herder argitaletxea, Bartzelona, 1983.

XANDRO, M.; *Grafología superior*, Herder argitaletxea, Bartzelona, 1979.

TEILLARD, A.; *L'ame et l'écriture*, 1990, Paris.

GULLAN WHUR; M., *Manual práctico de grafología*, Edaf. argitaletxea, Madrid, 1986.

ZURGAI. *Euskal Herriko olerkiaren aldizkaria*, Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratuta, 1990ko abendua eta 1991ko abendua.